


B

BARREN

“Nekazaritzak eredu aldaketa behar du”

Iñaki Lazarobaster,
Gipuzkoako EHNEko lehendakaria





Zubia
Jaletxea

TRINITATEKO JAIK!!

Egin ezazu zure erreserba!

- Mariskada
- Txerrikumea
- Eguneko menua
- Menu berezia
(gutxienez bi pertsona)

Bainuetxeko Zumardia kalea, 2 behea
20860 ALTZOLA
Tel.: 943 74 45 78

estetikaalire

Atera probetxua gure eskaintzari.

**10 gorputz tratamendu hartuta,
hamargarren doan.**

**Gainera, 2 aurpegi-higiene
oparituko dizkizugu.**

**EZ GALDU AUKERA!
ORAINDIK GARAIZ ZABILTZA**

Ordutegia

Astelehenetik Ostiralera

09:30 12:30 / 15:00 - 20:00

Asteazkena: 09:30 - 19:00

Larunbata: 10:00 - 13:00

**Upaiz zaharra, 1 behea - Tel.: 943 531 636
Elgoibar**

TRATAMENTUAK: Aurpegi eta gorputz tratamenduak (zelulitis aurkakoak, erreduktoreak) - Ongizate tratamenduak - Masajeak - Depilazio laserra, elektrikoa, argizarizkoa - Mikropigmentazioa - Manikura - Hantketako estetika - Solariuma - Medikuntza eta kirurgia estetikoak

Etorkizuna eraikiz

Batek bostekoa ematen dio *gorri*-horiari etxea eraikitzen hasteko behar duela uste duelako. Besteak akabatu nahi du, adreilu bat bera ere jartzen uzten ez diolako. Batzuek tresna batzuen jabe dira. Besteei tresna guztiak kendu dizkiete, eta lehenengoak kritikatzeko dituzte tresnok behar bezala ez erabiltzeagatik. Eskuinak ez omen du etxea eraiki nahi, ezkerrek etxea teiltatutik hasita eraiki nahi omen du.

Orain 70 urte inguruko arazoak, filmetan ikusitakoak akordarazten dizkit, anaia anaiaren kontra, *gorria* omen da bata, ez ordea bestea. Kanpotik arazoak etortzen zaizkigu bai, baina sokatiran ez da irabazten baikoitzak alde batera egiten badu tira.

Ez zaldirik, ez ezpatarik. Orreagako guduan baskoiek ez zioten frankoen gudarosteari irabazi arma onak izatearren. Batu egin ziren, eta harriak euren artean baino, guztiok batera, indar osoz, Errolani bota zizkieten. Harriak badauzkagu, batasunik ez.

Etxea eraikitzen hasi ere egin ez garenean, harriz jositako daukaguna geure teiltua da, eta horrek asko pisatzen du. Kanpotik boteak harri batzuk, etxe barruko bizilagunek jarritakoak beste batzuk, beti ere, teiltua erortzean albokoaren etxea apurtuko duelako esperantzaz; konturatu gabe, teiltu bat apurtzen denean, gai-

nean oraindik bere teiltu zati txoa duenaren etxea ere bustitzen dela. Ez dezagun guk geuk Iruñea suntsi.

Saia gaitezen gure esku ezkerre edo eskuina albokoaren eskuarekin lotzen eta, umetan bezala, albokoa nor den begiratu gabe korro handi bat egiten, gure etxea izango dena inguratuz, etorkizuna guztiok batera eraikiz, azken finean euskaldun guztiok, abertzale guztiok baikara anaia *gorri*, berde eta zuri.

Amaia Gorrotxategi



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitez gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Orreagako guduan baskoiek ez zioten frankoen gudarosteari irabazi arma onak izatearren. Batu egin ziren”

**"MERKATU GLOBALEAN EZ DUGU ZEREGINIK:
MERKATU LOKALA IZAN BEHAR DUGU"**
Iñaki Lazarobaster, Gipuzkoako EHNEko lehendakaria

www.elgoiBARREN.net

**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

aimarolaizola

Oinatz Bengoetxearen aurka galdu aurretik egindako elkar-
rizzketa honetan, Aimar Olaizola pilotaria baikor ageri zen.
“Sasoi onean nago”, zioen. Bengoetxeak eragotzi du Goi-
zuetako anaien arteko finala buruz buruko txapelketan. Lau
urte nagusiagoa den Asierrek eragin nabarmena izan du be-
re afizioan. Zortzi urte dituenetik, frontoia bere bigarren
etxea bihurtu da. Astia duen bakoitzean, mendira joaten da
txakurrarekin, eta ehizan ibiltzea ere atsegin du.

Andoni Iturbe

“Beti izan dut konfiantza nire buruarengan”

Baietz asmatu. Mendian zaude.

Bai. Goizuetan nago, mendian, eta gainera segapotoak batera gutxi du. Txakurrarekin nabil, Tinarekin. Kumeak izan ditu, eta orain lau txakur ditut. **Goizuetan jαιο eta Goizuetan bizi zara. Gurasoekin?**

Bai.

Eta zelan?

Ondo. Egunen batean jarriko naiz nes-
karekin bizitzen. Baina, momentuz, ez dut
presarik.

**Pisuen prezioa ere jaitsi egin da. Eroste-
ko sasoi egokia izan liteke...**

Bai, baina hala ere garesti daude.

Sasoi onean zaude?

Bai, binakako txapelketa ondo bukatu dut
eta horri eutsi nahi diot nola edo hala. Bi-
nakakoa bukatu ondoren, entrenamendu
gogorra egin dut, eta orain nahikoa arraroa
nago buruz burukoaren hasiera delako.

Oraindik denbora dago eta ea hobetzen
dudan.

Txikitatik ibili zara frontoian?

Bai, zortzi urterekin hasi nintzen pilotan,
baina txapelketetan lehiatzen bederatzitza ur-
tera arte ez nintzen hasi. Egun osoa fron-
toian pasatzen nuen.


**Zure buruarekin lehen baino konfiantza
gehiago daukazu?**

Beti izan dut konfiantza nire buruarengan.
Norberak daki zein momentuan dagoen. Eta
binakakoa irabazteak konfiantza ematen du.
**Txapelak ez zetozenean, ez zinela lehengo
mailara iritsiko esaten zuten. Aho horiek
isilarazi dituzu behin betiko?**

Buruz burukoan txapeldun ere geratu nin-
tzen, eta orain binakakoa irabazi dut. Ho-
rrekin dena esanda dago.

**Pilotaren sailkapenean lehenengo postuan
zaude...**

Horri ez diot erreparatu handiegirik egiten.



Nire aitak dio ez duzula zure onena oraindik eman. Arrazoa dauka?

Ez dakit. Agian arrazoa du. Horrela bada, hobeto. Baina orain arte egindakoarekin gustura nago. Oraindik gaztea naiz, eta saiatuko naiz txapela gehiago irabazten.

Nor da zure aurkaririk gogorrena?

Ez nuke bakarrik aipatuko. Goialdean pilotari asko daude, eta pilota munduarentzat hori ona da. Aurkari asko daude eta beti ondo prestatuta egon behar duzu irabazteko.

Zure lagun gehienak ere pilotariak eta pilota-zaleak dira?

Bai, gehienak bai. Herriko eta kanpoko lagunak ere afizioa dute.

Palan jokatzeko duzue eurekin?

Ibiltakoa naiz, baina ez da komenigarria.

Asier anaia ezkondu zen eguna nola gogoratzen duzu?

Oso egun polita izan zen, egon naizen ezkontzarik politenetakoa.

Egia da Asegarek ez zizula ezkon-bazkaria joaten laga?

Azkenean bai, joan nintzen. Balmasedan jokatu behar nuen egun horretan, eta enpresak errezeloa bazuen ere, joan nintzen.

Eta zuk ezkontzeko asmorik baduzu?

Momentuz ez.

Familiaren sagardotegian ere lanean jarraitzen duzu?

Bai azken lau urteotatik. Anaiak eta biok sagardotegian egiten dugu lana ahal dugunean eta pilotan jokatu behar ez dugunean. Barran ere egoten gara askotan.

Aurten Txinan Olinpiar Jokoak izango dira. Jarraitzeko asmorik?

Jarraitzeko asmoa dut. Gustatzen zait beste kirolak ere ikustea. Aurten gainera ikus-min handia piztu du boikota dela eta ez dela.

Gogoratzen duzu Bartzelonako Olinpiar Jokotako pilotaren erakustaldia?

Bai, afizionatuak egon ziren. Polita izango li-

tzateke Olinpiar Jokoetan parte hartzea, baina pilota gehienbat hemen jokaten da.

Txinatarrek hasiko balira...

(*Barreak*) Agian gu baino hobek izango liriateke, entrenatuko balute.

Kazetariak zutaz idazten dutena irakurtzen duzu?

Batzuetan bai.

“Buruz-buruko enperadorea”, “Txapeldun lasaia”...

Irakurtzen dudanari ez diot erreparatu askorik egiten. Eskubidea dute nahi dutena idazteko, baina zer nolako mailan nagoen nik dakit.

Lasaia zarela ematen du...

Ez uste. Hori ematen du, baina ez dut asko azalaratzen, eta ez da nabari. Partida askotan sekulako tentsioa egoten da eta nik ere nabari dut.

Zure bizitzako anbizioirik handiena, zein da?

Buruz burukoa irabaztea eta nire neska edo andrearekin familia osatzea.

Ume asko izango zenituzke?

Hiru bat edo.

Ehizatzen jarraitzen duzu?

Bai, baina denboraldia itxita dago, eta noiz irekiko zain nago.

Pilotari batzuen artean “El risitas” deiturarekin ezaguna zara...

Bai, Begarak ikusten nauenean oraindik ere “El risitas” deitzen dit.

Irribarreari eusten diozu...

Bai, hori berezkoa da, eta eutsiko diot. Umore onekoa naiz.

Udan jendeak oporrak hartu ohi dituzenean, pilotariok lan gehiago duzue...

Bai, normalean lan edo partida gehien orduan izaten ditugu. Kirolarion bizitza guztiz kontrakoa da zentzu horretan, eta guretzat urte osoan punta-puntan egotea zaila da.

Garaipenak

- ❖ Binakako txapelduna (2008)
- ❖ Buruz buruko txapelduna (2005 eta 2007)
- ❖ 4 t'erdiko txapelduna (2002, 2004 eta 2005)
- ❖ Bigarren mailako banakako txapelduna (1999)
- ❖ Binakako txapeldunordea (2003)
- ❖ Banakako txapeldunordea (2003 eta 2006)
- ❖ Nafarroako 4 t'erdiko txapelduna (2005)

Amateurretako garaipen zerrenda:

- ❖ 20 urtetik beherakoetan espainiako banakako txapelduna (1998)
- ❖ Nafarroako binakako txapelduna (1998)
- ❖ Gazte mailako El Diario Vasco lehiaketako txapelduna (1996)
- ❖ Elgetako 4 t'erdiko lehiaketako txapelduna (1995)



“Lasaia naizela dirudi, baina partida askotako tentsioa ere nabari dut”

Amalurra

Arropak garbitzen

Urak erabateko garrantzia izan du beti baserrietan. Orain ez bezala, antzina ura ez zen kasu gehienetan etxean bertan izaten eta, astoa hartuta, erreka ondoraino edo iturriraino jo behar izaten zuten arropak garbitzera.

“Lehen joaten ziren ez dakit noraino”, azaldu du San Roke baserriko Josefina Ulaziak. Euren inguruetako alberga edo askarik ederrena dago, ermita ondoran. Arropak garbitzeko leku hori, baina, ez da beti han egon. “Hau nere aititak ekarritako ura da”, esan du. Lehenago iturriren batera jotzen zuten eta han konpontzen ziren.

Albergan edo askan

Baserri askotan daude arropak garbitzeko askak. Josefinak oraindik gogoratzen du ume sasoiak zelak jarduten zuten. “Dena bertan egiten zuten lehen. Jaboia emanda, dena ipini ilaran, garbitu eskua-ekin eta akklaratu. Hor ibiltzen ziren”, dio. Berak hala ere, askotan arropak fregaderan garbitu eta albergan akklaratzeko zituen.

Emakumeak aritzen ziren zeregin horretan, eta lan handia izaten zen. Garbitasunari beste garrantzi bat ematen zaio



gaur egun. “Baserrietan lehen ez zen hainbeste garbitu ere egiten. Orain beti dutxatzen eta beti garbitzen. Diferentea da”, us-te du Josefinak.

Lehen-lehen lixiba egiten zutela gogoratzen du, gainera. “Poto batean egiten zen lixiba. Sutako hautsarekin izaten zen. Ene! Hori ere ezagutu nuen”, esan du.

Sutako hautsa arropa zuritzeko erabiltzen zuten.

Era guztietara, arropak garbitzeko makina aspaldi ekarri zuten etxera. Hasierako makinek garbitu bai, baina ez zuten akklaratzeko. Horregatik, aska arropa akklaratzeko erabili izan du hainbat urtetan.

Sasoiak sasoikoa

Tipulina

Udaberri eta udan izaten dira tipulina. Berez, porruaren antz handia du, tipularena baino handiagoa. Asia aldetik dator eta Txinan orain dela 2.000 urte lantzen hasi ziren.

Tipula normala baino samurragoa da jateko. Orriak eta zurtoina ere jaten dira. Aukeran, hartu orri samurrak dituztenak.

Tipularen nutriente eta substantzia sendagarri berberak ditu, baina kontzentrazio txikiagoan. Entsaladan gordinik

edo beste hainbat janarekin har daiteke (tortillan...). Horrez gain, binagreta, maionesa edo saltsei zapore berezia ematen die.

Tipulinaz gain, honako produktuak ere aurki daitezke merkatuan hil honetan: baba beltza, ilarra, patata berria, zainzuria, berakatz samurrak, udaberriko aza, kogolloa, letxuga, eskarola, apioa, borraja, azelga, espinaka, porrua, erremolatxa eta azenarioa.



Iñaki Lazarobaster

Gipuzkoako EHNEko
lehendakaria



Altzolaberaseta baserriko Iñaki Lazarobaster Gipuzkoako EHNE sindikatuko presidente aukeratu zuten urtarrilaren 20an. Bere zereginen eta baserriaren egoeraren inguruan jardun du Lazarobasterrek el-karrizketa honetan. Osorik irakurtzeko: www.elgoibarren.net

“Egoera oso zaila da”

Zer moduz lehendakari karguan?

Hiru hilabete dira hasi ginenetik. Lehen asteak komunikabideekin-eta nahiko okupatuta joan ziren. Exekutiban berri-berri gabiltza, hasteko asmoarekin. Gipuzkoako EHNE ondo antolatu nahi dugu, eta horretan gabiltza. Lan egiteko era edo antolatuta egoteko era ere berritzailea izatea nahi dugu. Gazteak gara denok eta lehendik datozen inertziekin amaitu nahi dugu, berriekin hasteko asmoz. Noraeza ere badaukagu, baina poliki bagoaz pausoak ematen.

Zuzendaritza berriko kide guztiak gazteak zarete. Zergatik?

Azken urteetan ikusi zen Gipuzkoako EHNEn nolabaiteko ulertu ezinak zeudela. Azken batean, erabaki zen dena berritzea onena izango zela. Hortik jende berri eta gaztea sartu zen sindikatuan, ordura artean egitura osoan kargurik eduki gabeko jendea. Hor gaude hamar gazte, hainbat bailaratakoak, baserria ulertzeko era desberdinetakoak, neska eta mutil...

Zeintzuk dira zuen lehentasunak?

Lehen helburua etxeko lana egitea da, eta barrutik ondo antolatzea. Aurrera begira dauzkagun helburuak kongresuan onartu ziren, eta nekazaritza politikako ponentzian idatzita zetozen. Lan ildoak bost dira: lehenengoa, baserriarraren lanaren errekonozimendua eta soldata duina lortzea; bigarrena, lurraren defentsa egitea eta hortik daukagun nekazaritza lur azalerari eustea; hirugarrena, baserriak baserri gazte betetzea; laugarrena, parekidesuna, bai sindikatuan bertan eta sektorean ere bai; eta bosgarrena EHNEn lau sailetan lanketa berezia egitea (baratze-fruta saila, esne saila, haragi saila eta ardi saila).

Hamabost urtetan baserrien %85 galdu dira.

Galerak ez du etenik?

Momentuz horrela jarraitzen du, eta kontuan hartu behar da azken hamabost hilabete hauetan egoera oso-oso larria dela, pentsuak izan duen igoerarengatik. Abeltzainei produktio kostuak asko igo zaizkie, batez ere pentsuenak, baina gainontzeko produktuenak eta ere bai. Kortak hustutzen ari dira, batez ere haragitakoak. Kostuak igo dira, eta gure salmentako prezioa ez da igo: margenik ez da gelditzen eta, kasu askotan, ez da diru gutxi irabaztearen arazoa: zuloa egiten da.

“Baserriarrok ziklo osoa behar dugu: produzitu, elaboratu eta saldu”

Sektorearen egoera larria da, beraz.

Egoera oso zaila da. Kontu asko dira. Hemen nekazaritza ereduaren inguruko aldaketak lortu behar da, betidanik aldarrikatu izan den lurrari lotutako nekazaritza. Merkatu globalean ez daukagu zereginik. Izan behar dugu merkatu lokala, eta baserriarrok produktoria mugatu beharrean ziklo osoa osatzen saiatu behar dugu: produktioa, elaborazioa eta salmenta zuzena. Salmanta zuzen horren bitartez lortu daiteke soldata duina. Bitartekari bat sartzen bada, berak eramaten du zatia soldata duin hori lortzeko.

Euskal Y-ak zer ekarriko dio nekazaritzari?

AHT pasatzeko lur azalera hori galdu egingo da. Gainera, lurraldea bi zatitan banatuko du. Alde bat eta bestea oso inkomunikatuta geldituko dira. Zatiketa horrek erdibitzen baditu euren sailak, baserriar horiek oso kaxkar gedituko dira. Baserriarren batek nahi badu ikuitu berri bat egitea edo anpliazioaren bat, ezin izango du, segurtasun distantzia dela-eta.

Gipuzkoako EHNEk mobilizazioa iragarri du ekainaren 8rako (domeka). 12:00etan manifestazioa hasiko da Bulebarrean. Aldarrikapenak eta salaketak, honakoak.

- **Lurraren defentsa:** azpiegitura handiek urtean 800 hektarea lur artifizialtzen dituzte EAEn. Espekulazioa ikaragarria da eta gazteek instalatzeko arazoak daukate.

- **Kostuen igoera:** produktoreak berdin kobratzen du eta eroslea gehiago ordaintzen ari da. Bitartekarien gehiegikeriak ez izateko prezioen gaindegia eskatuko dute.

- **Klientelismoa:** sektorearen inguruan enpresa publiko nahiz parapublikoek eta elikagai enpresa handiek nekazaritzako diru kopuru handiak jasotzen dituzte.

- **Baserriar txikien burokrazia:** baserriarrek gero eta paper gehiago bete behar dituzte, administrazioak eskatuta.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Bonxeko espetxetik

Aupa Bengo!

BARREneko "Nire txanda" ataletik bidali didazun eskutitza erantzutera nator. Eta, bide batez, elgoibartarroi ere hitz batzuk zuzentzera Bonxeko espetxetik.

Lehendabizi esan, abstentzioaren aldeko apustua txukun atera denaren sentipena daukadala. Izan ere, aurreko hauteskundeekin alderatuta %13an igo da portzentajea. Baina, horrez gain, boto abertzale asko joan da abstentziora ezker abertzaletik aparte (EAJ eta EAREN artean 940 boto gutxiago atera dute eta PSOEek igo dituen 640ak ez ziren denak hortik etorriko, ezta gutxiago ere). Beraz, badirudi 1.800-2.000 inguru lagun abertzalek jo duela abstentziora, eta hori handia da gero!

Hauteskundeak, gainera, greba eta mobilizazio sendoen ondotik etorri dira, eta, dudarik ez, elkarren bultzada izan dutela. Beraz, kalean egoera politikoari erantzun dotorea ematen ari zaiola iruditzen zait eta zorionak horretan buru-belarri zabiltzatenoi.

Espainiako komunikabideek ezkutu egiten dute hori guztia: Euskal Herriak sortzen duen dinamika politiko hori guztia ez da existitzen. Baina errealitatea egoskorra denez, hortxe agertzen da arazoa, behin eta berriz. Euskal Herriko arazoa ez, espainiar arazo handi bat dago errealitatearen aurrean jartzeko eta herrien arteko elkarbizitza bat onartzeko.

Hauteskundeetako emaitzek, nire ustez, neurri batean erakusten dute ara-

zo hori. Izan ere, estatuak dituen arazo-en aurrean (gure herrikoa lehendabizikoa), aurrez aurre dauden bi ikuspegi azaltzen dira bete-betean.

Gure espetxe honen berri emateko, esan lau preso politiko euskaldun gaudela, modulu banatan sakabanatuta. Horietako bik zigorraldia beteta edo betetzekotan: batek, 20 urte beteak; besteak, 17. Lege aldaketak direla eta, ordea, lehenari 30 urtera arteko luzapena ezarri nahi diote, eta bigarrenari beste hiru urteko gutxienez. Espetxeetako egoeraren isla, berau: gaixorik larri dauden hogeitaka lagunez gain, espetxealdia luzatuko zaion lagun andana.

Bonxeko espetxetik agur beroa zuzentzat, eta elkarren berri gehiago izan arte, ondo segi!

Juan Mari Mendizabal

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARREnen edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiek identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gazteleraz datorren eskutitzik argitaratuko.

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





**Unai
Arrieta**

Sari betetze-
ra iristen ez garen
arren, burutapen eta as-
mo ugari izaten ditugu denok egu-
nerokoan. Lortu edo egin nahi horiek gure bizitza-bideko ja-
anaren norabide eta energia dira.

Zuk ondo dakizun bezala, Zuhaitz, kirolak eta jarduera fisikoak ere bere bereak ditu asmoak, lortu edo egin nahiak, ezinbesteko gai du helburua. Bada, gozatzea beste xederik gabe, noizbehinka Muskuru-txun paseatzen duenik. Bada, baita, Behobia-Donostia ordubete eta hogeiren azpitik bukatzea jomuga duenik ere. Batzuek pilota partida jokatzen dute ostegunetako lagunarteko afariaren aurretik. Beste batzuek, udako *modelltoa* buruan, gimnasio ariketa aspergarriei heltzen diete, jarduera fisikoa periferia estetiko eta sinboliko bihurtuz.

“Egindako esfortzu inbertsioak izaten ditu noizbait bere irabaziak”

Zure eta nire jardunak, ordea, Zuhaitz emaitza eta errendimendu helburuak ditu. Gainera, gehienetan emaitza gailentzen da errendimenduaren gainetik. Eta emaitza helburuen soinura, gure garaipenen poz eta porroten tristura dantzak.

Ez dut aurtengoan ere ligarik irabazi, ezta koparik ere. Ez naute sartu iritzi hipokritek astindu duten aurpegi biko txinatar jokoetarako Euskal Herriko selekzioaren deialdian (selekzio nazionalarekin ofizialki jokatzeke ametsa inoiz egia bihurtuko ote?). Helburu apalagoen erdiespenez izan bada ere, bizi izan dut garaipen unerik. Nago, Zuhaitz, finean, kirola esker onekoa dela. Egindako esfortzu inbertsioak izaten ditu noizbait bere irabaziak. Loak galdutako gauek merezi izan dute aurtengo garaipen-une bete-ederrak bizitzeagatik.



**Zuhaitz
Gurrutxaga**

Duela 5 urte ospatu nuen azkenengoz kirol garaipen bat. Errealean nintzen ligako bigarren postu garrantzitsu hura lortu zen garai hartan. Balantze pertsonala egin nuen ordea, eta hark urte hartan 2 partidu solik jokatu nituela zioen. Lorpen handi hartan partaidetza urria izan nuen eta nire barneko poza ere neurri berean murrizta zen beraz. Orduz gero hainbat taldetan aritu nintzen, eta ez nuen liga ez koparik irabazi. Are okerrago, neure ibilbide profesionalak gainbhera itzela pairatu zuen. Neure buruarekiko konfiantza galdu nuen eta baita futbolariekiko ilusioa ere. Halako batean ordea Bizkaiko herri txiki hartako futbol taldean egokitu nintzen. Bertako aparkalekuan ez zen ez Porsche ez BMWrik, ez eta aldagaletan Armani edo Prada markako arroparik.

“Izar handi horien alboan lortu nuen neure ibilbideko garaipenik ospatuena”

Ez zen milaka jenderik gerturatzen igandero, eta ez zen inor izaten autografo eske entrenamendu ostean. Beharrean 8 orduz aritu ostean gerturatzen zen taldekide asko arratsalderoko lan saiora. Arropa umela genuen egunerokoan, eta zelaiaren inguruko sasetan baloi bila denbora dexente pasa ohi genuen iluntzeoro. Baina igandero, Gaztelako hiriburu aberastetako taldeen aurka, fede, gogo eta indar handinez aritzen zen nire taldekide bakoitza. Profesionaltasun zintzoenaren erakusgarri ziren aldioro. Beraiek izan nituen benetako ispilu. Izar handi horien alboan lortu nuen neure ibilbideko garaipenik ospatuena. Neure lanarekiko maitasun eta ilusioa berreskuratu izana hain zuzen.



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Maiatzaren 1etik baimen barik dabilzan gidariak kartzelara joan daitezke

Kartzela zigorra ezarri behar zaie gida baimenik gabe gidatzen dutenei?



Celestino Zubiaurre

66 urte, jubilatua

Oso ondo, ijito asko gida baimenik gabe dabilta. Aspaldi hartu behar ziren neurriak. Lotsagarria eta oso arriskutsua da aseguruik eta baimenik gabe gidatzea.



Jose Javier Marcos

41 urte, mantentze-lanak

Bai, baimenik eduki gabe gidatzen jakin dezakezu, baina asegurua? Isunarekin nahikoa ez da. Dirua dutenek ordaindu eta berriro eragin dezakete kalteren bat.



Jon Villarreal

39 urte, autonomoa

Bai, gainera aseguruik gabe are eta okerragoa da. Zerbait pasatzen bada, erantzun egin behar da. Asegurua beti indarrean egon behar da eta gida baimena eduki behar da.



Elisabeth Alvarez

23 urte, ikaslea

Bai, oso ondo dago. Gainera norberak ez du erririk errepidean zororen bat badabil. Lehenago hartu behar zen neurria, orain, badirudi, neurri guztiak batera egiten ari direla, blokean.

10^{eko}
TXIKIAN



**IKER
TAPIA**

Tailer batean egiten du lan

1. Zer falta zaio herriari?

Aparkalekuak falta zaizkio.

2. Alkatea bazina, zer egingo zenuke di-da batean?

Aparkalekuak jarriko nituzke alkatea banintz. Niretzako oso garrantzitsua da aparkalekuak gehitzea. Elgoibarren bizi naiz, eta hemengo tailer batean egiten dut lan. Kalera etortzen bazara erosketak egitera, oso gaizki dago aparkatzeko.

3. Azken aldian egindako obretatik, zein da gutxien gustatu zaizuna?

Merkadilloa Sigmara eramatea.

4. Zein da elgoibartarrik famatuena, zure ustez?

Joseba Etxeberria.

5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai, nik wing tsu egiten dut. Egia da kiroldegia pixka bat txiki geratu dela, igerilekua eta muskulazio gela batez ere. Mintxetakoarekin hobeto dago, baina ez da nahikoa.

6. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

Txiki Eguna.

7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ez, ez naiz sekula bainatu Deba ibaian, eta ez dut uste banatuko naizenik.

8. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Bai, baina ez dut garraio publikorik erabiltzen. Autoan ibiltzen naiz bategatik bestera.

9. Elgoibar nolakoa den galdetu dizu kanportar batek.

Herri lasaia da astegunetan, eta zapatu gauetan zalaparta gehiago egoten da.

10. Behar duzun guztia daukazu herrian?

Bai, erosketak ere hemen egiten ditut, eta, egia esan, kanpora gutxitan joaten naiz.



Sigmako aparkalekuan zulo handi bat dago:

“Aspalditik dago Sigmako aparkalekuko lurrean zulo handi bat, asfaltoa puskatuta dago. Jende askok aparkatzen du autoa ingurune horretan, eta konpondu egin behar dute”.



Pena handia eman dit Plaza Handiko etxea botatzeak:

“Zaharra zegoen eraikina, baina ederra zen. Nire ustez, kanpoaldetik eraikina zegoen moduan laga behar zen, garbitu eta berritu, baina behera bota gabe”.




Txalo bat Udalarai Altzolako zubiko baranda berri eta komuna jartzeagatik:

“Poliki bada ere, hasi da Udala Altzola auzoaren itxura eta egoera hobetzeko obrak egiten. Zubiko baranda oso zahartuta zegoen, erabat erdoilduta eta aldatzeko beharra zeukan. Itxura dotorea hartu du orain zubiak. Bestalde, komun publikoa jarri dute Zelaia parkean, eta oso ondo geratu da. Altzolan oraindik badago zer hobetu eta, gutxi garen arren, bertako bizilagunok ere merezi dugu begirune piskat. Mila esker!”.



Zuen kezak, galderak edo txaloak
bidaltzeko: barren@elgolbarkozarra.com 943-74 41 12



Aure

- Berria!! Udako altzariak
- Zure beharretara egokitzen diren alfombren aukera paregabea.
- Gremioen koordinazioa, dekorazioa, berrikuntza eta altzariak.

Tel./Fax: 943 74 35 09

Altzolako Aurretxe etxean bizi ziren okupak bidali egin dituzte epailearen aginduz

Etxibizitza garbitu eta itxi egin du Udalak

Elgoibarko Udalaren eskaera aintzat hartu dute Donostiako epaitegian, eta epailearen aginduz, udaltzain eta ertzainek Altzolako Aurretxe etxean bizi ziren okupak bertatik bidali zituzten martitzen goizean.

Istilurik ez

Han bizi izan diren duten hamar lagun inguru zeuden Altzolan martitzenean. Ezustean harrapatu zituzten udaltzain eta ertzainek, baina ez zen istilurik sortu. Etxe barruan zeuzkaten jabetza eta baliozko gauza guztiak batu eta etxetik atera zituzten. Bizpahiru auto erabili zituzten euren gauzak beste lekuren batera eramateko. Kezka zen nagusi emakumeen artean: nora joan ez zeukatela esaten zuten, eta umeez non lo egingo zuten galdetzen zuten behin eta berriz. Azkenean, autoan sartu eta Altzolatik alde egin zuten.

Zikinkeria arteko bizimodua

Orain dela urtebete iritsi ziren bizilagun errumaniarrak Altzolara. Aurretxe etxeko hirugarren solairuan bizi ziren, eta



bizitzeko baldintza eskasak zituzten arren, bera zen etxeko tokirik txukunena, izan ere, lehenengo bi pisuak zikinkeriaz beteta baitzeuden: telebista zaharrak, zaborra, jantziak... Udalak apirilean garbitu zuen etxebizitza, inguruko bizilagunek eskatuta.

Udalak Aurretxe etxea garbitu eta itxi egingo du, horrelako egoerarik erre-

pikatu ez dadin. Ondoren egin behar-koa Aurretxe eta Sebastiana etxeen jabeek erabaki beharko dutela adierazi du Alfredo Etxeberria alkateak.

Informazio gehiago eta bideoa ikusteko: www.elgoiBARREN.net

Udalak zahar-etxe berriaren proiektuarekin erakutsi duen jarrera kritikatu du Elgoibarko Ezker Abertzaleak



Elgoibarko Ezker Abertzaleko zenbait lagunek prentsaurrekoa eskaini dute aste honetan, Udalak zahar-etxe berriaren proiektuan azaldu duen jarrera kritikatzeko. Euren esanetan, Einbiouk 2006ko ekainean eman zuen aditzera zahar-etxe berri baten beharra zegoela, eta ikerketa sakon bat egin ondoren, txosten bat kaleratu zuten herriak alor honetan zituen beharrek. "Oraindik ez dugu erantzunik jaso. Udalak inorekin adostu gabe aurkeztu du bere proposamena, gai honen inguruan dabitzan eragileak kontuan hartu gabe. Gure ustez, alkateak protagonismo hutsa bilatzen du, elgoibartarrentzat hain garrantzitsua den gai honekin".

Proposamena nork egiten duen ez dela garrantzitsuena esan zuten, Udalak euren proposamenarekin bat egin duelako pozik agertu ziren.

Protagonista **Bruno Guerrero**



Bruno Guerrero altzolaterra Cuatro kateko *El gran quiz* lehiaketako partaideetako bat da. Saioa hasi duten partaideek hautapropa gogorrek gainditu behar izan dituzte, eta aurkeztu ziren ehunka pertsonen artean 24 lagunek bakarrik lortu dute lehiakide izatea. Joan zen domekan izan zen lehiaketaren lehenengo saioa, eta Bruno Guerrerok aurrera egitea lortu du. Irabazleak 400.000 euroko saria irabaziko du. Extremaduran jaioa da Bruno, 35 urte ditu, ezkondua dago eta seme bat dauka. Saria irabazten badu, lan gutxiago egingo duela adierazi du.

Zenbakia **524,50**

Gipuzkoako gaixo eta ezinduek Lourdesera joateko diru bilketa egin zuten antolatzaileek, eta Elgoibarko herriak oso ondo erantzun du. 524,50 euro bildu dituzte, eta eskerrak eman nahi dizkiete laguntza eman duten herritarrei. Maiatzaren 29tik ekainaren 2ra arte joango dira aurrean Lourdesera.

Argazkia **Indarkeriaren biktimei omenaldia**

Indarkeriaren biktima izan diren elgoibartarrei omenaldia egin zieten apirilaren 26an, Udalak eta Eusko Jaurlaritzako Terrorismoaren Biktimen Arretarako Bulegoak. ETAk eta Komando Autonomo Antikapitalistek hildako sei herritar omendu zituzten. Rosita Herrerok (Angel Berazadiren familiaren izenean), Mari Luz Rojok (Patxi Zabaletaren alarguna), Estrella Murillok (Jose Expositoren alarguna) eta Mari Carmen Araolazak (Jaime Arreseren alarguna) une hunkigarriak bizi izan zituzten. Sebastian Aizpiri eta Anselmo Duranen seniderik ez zen agertu. Ekitaldi xumea izan zen, eta hainbat herritar gerturatu ziren udaletxera, senideei euren babesa eskaintzera.



Jesus Bilbao eta Juan Gabilondo omendu ditu AFMk

Apirilaren amaieran AFMren baztar nagusia egin zen, eta bertan urrezko intsignia jaso zuten Jesus Bilbao eta Juan Gabilondo elgoibartarrek euren lan ibilbideagatik.



Nagusiak zaintzeko ikastaroa

Maiatzaren 26tik ekainaren 2ra nagusiak zaintzeko ikastaroa egingo dute Mendaron. Arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara izango dira klaseak, Mendaroko udaletxean. Gehienez, hogei lagunek eman ahal izango dute izena. Interesatuek 943 428013 edo 663057223 telefonoetara deitu dezakete.

Jose Antonio Alonsok PSE-EEren egoitza bisitatu zuen

Jose Antonio Alonsok, PSOEren kongresuko bozeramaileak, ETAk Elgoibarko PSE-EEren egoitzan jarritako bonbak eragin zituen kalteak ikustera etorri zen apirilaren 27an. Herriko afiliatu, militante eta kargu publiko sozialistei babesa eta elkartzuna adierazi zien.



Herriz herri dabilen ahaldun nagusia Mendaron

Markel Olanok Mendaro bisitatu zuen pasa den apirilaren 24ean. Uztailean Gipuzkoako ahaldun nagusi izendatu zutenetik, lehenengo aldia zen hurbiltzen zena. Hartuko diren neurri eta proiektuen inguruan hitz egitea zen bisitaren helburua. Hizpide nagusia zubi berria izan zen, N-634tik industriagunera, eta hortik ospitalera bidea irekiko duena. Inguru hori eta egingo den haurtzaindegi berria bisitatu zituzten, besteak beste, Olanok eta Udaleko ordezkariak.



Andoni Iturbe

Markel Olano, erdian, Irune Berasaluze alkate

Ordu eta erdi beranduago heldu zen Markel Olano Mendarora, Donostian eman behar zuen prentsurrekoa bukatu bezain laster. Gipuzkoako ahaldun nagusia Lurralde Historikoko herrietara egiten ari den bisiten barnean kokatu behar da Men-

darora etorri izana. Irune Berasaluze alkatetza eta Udaleko zinegotziak zituen zain proiektuen berri emateko.

Markel Olanok arreta handiz jarraitu zituen Udaleko ordezkartzaren azalpen eta xehetasunak. Herriko hainbat txoko ere bisitatu zituen. "Pozik eta harrিতuta agertu

zen, ez baitzuen espero Mendarok horrelako instalazioak zituenerik: udaletxea bera, San Agustin kulturgunea, eguneko zentroa...", adierazi du Irune Berasaluze alkatetza. Arratsalde partean amaitu zuen bisita ahaldun nagusiak, Mendaro gertutik eza-gutu ondoren.



Mendaroko Udaletxea edonor harritzeko moduko eraikin handi eta modernoa da. Markel Olano bera ere harrিতu egin zen haren tamaina ikusita.



Garagartza auzoan dagoen San Agustin kulturgunea, lehenengo Agustina mojen kapera: Markel Olanok apirilaren 24an bisitatu zuen lekuetako bat.



Mendarok ere gizarte gaietan egiten duen lanaren erakusgarri izan zen eguneko zentroa. Pertsona ezinduei egunero eskaintzen diete arreta.



a alboan duela, Udaleko gainontzeko ordezkariarekin batera apirilean egin zuen bisitan.

“Banekien herri telebista izan zuela Mendarok”

Markel Olano ez zen esku hutsik etorri Mendarora, eta luze eta zabal hitz egin zuen Udaleko ordezkariekin Mendaroko orainaren eta etorkizunaren inguruan. Lan-talde osoa banan-bana agurtu ondoren, udaletxea erakutsi zion Iruñe Berasaluze buru zuen ordezkariak. Iraganararako ere tartea egon zen, Mendaroko Herri Telebista egiten zen sasoia gogora ekarri zuten. Gipuzkoako ahaldun nagusiak bazekien herri telebista izan zuela Mendarok, eta alkateak azalpen ugari eman zizkion, proiektu handi hura bertan behera laga behar izan baitzuten. Berasaluzek egitasmo hura Euskatelen zuntza erabiliz egin ahal izan zela adierazi zion Olanori eta garesti atera zela.

Adibide horrekin, argi geratu zen Mendarok aspalditik erakutsi duela puntapuntan egoteko nahia.

Hurbiltasuna

Udaletxea barrutik ikusi ondoren, egin zuten bilera. “Guretzat oso interesgarria izan da ahaldun nagusia gure artean edukitzea, Foru Aldundiaren eta Udalaren arteko harremanak erraztu egiten dituelako eta aldi berean, hurbiltasunaren seinale delako. Alkateak johan ohi izan gara Donostira zerbait behar dugunean eta kasu honetan, bera ari da herriak bisitatzen”, argitu du Iruñe Berasaluzek.

Mendaroren biztanleria handitzen doan neurrian, herriaren beharrak ere

aldatzen ari dira. Markel Olanok herriak dituen instalazioak oparoak zirela egiaztatzeko aukera izan zuen, baina aurrera begira Udalarekin batera lanean jarraitzeko nahia agertu zuen. Zubiaren proiektuari dagokionez, elkarlanean hasita daude dagoeneko Foru Aldundiarekin. Zubi berria N-634tik industria gunera eta hortik ospitalera joango da. Inguru hori bisitatu zuten elkarrekin eta haurtzaindegi berria non irekiko duten ikusi zuen. Horrez gain, Mendaroko herriaren egoitza eta gune nagusiak bisitatu zituen egunari bukaera emateko.

Markel Olanok eta Udaleko ordezkariak bisitaren balantze ezin positiboa egiten zuten.

Gure berbak

Aditza (15): NOR-NORI-NORK iragana plurala

NOR-NORI-NORK aditzen iraganeko formak dittugu gaur, objektua plurala debena. Hónek dira aditz-forma erabilixenak:

- Neutruak: *Liburu bi erosi niozen atzo lagunari; liburu bi erosi ziozen harek lagunari; liburu bi erosi gifuzen guk; liburu bi erosi ziñozen; liburu bi erosi ziñuezen; liburu bi erosi ziuzezen gurasuak semiari.*

- Hikakuak (giz.): *Liburu bi erosi najauzen lagunari; hik liburu bi erosi ziuzen lagunari; liburu bi erosi jauzen harek; liburu bi erosi gifuizen guk; liburu bi erosi jauzezen gurasuak semiari.*

- Hikakuak (emak.): *Liburu bi erosi najaonazen lagunari; hik liburu bi erosi zionazen lagunari; liburu bi erosi jaonazen harek; liburu bi erosi gifunuzen guk; liburu bi erosi jaoenezen gurasuak semiari.*

Betiko antzera, -Z da pluralgillia aditz honetan ere, Bizkaia aldi bezela.

Ez dira nahastu bihar NOR-NORI-NORK aditzen eta NOR-NORK aditzen erabillerak, zenbaitte egiten debena bezela:

- Mikelek ekarri zidan Debatik autuan;
- Ikusi nion mendixan (Patxiri).

Horren orde, *ekarri ninddun* eta *ikusi naban* dira zuzenak, hurrenez hurren.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1955

Aste honetako erretratu zaharra Begoña Gabilondok laga digu. 1955. urte inguruko argazkia da, eta San Pedron aterata dago. Morkaiko Mendizale elkarteak antolatuta, Finalista Eguna ospatu zuten egun horretan, eta herriko txistulariak igo ziren jaia girotzeko asmoz.

Gogora ditzagun argazkian agertzen direnak:

Aurreko ilaran: Patxiko (†) eta Silbino (†) txistulari ezagunak. Bi horiek lan handia egin zuten garai hartan txistuari indarra emateko. Bien erdian Pako Berdun (†) eta Jose Mari Gurrutxaga azaltzen dira.

Atzeko ilaran: Ramon Araolaza, Antonio Aizpiri "Talaixa" eta Loiola.




ESKERTZA



2008ko apirilaren 27an hil zen *Jose Luis Lascurain Echave* jaunaren sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





'121 amu KOSTALDEA EZAGUTZEKO' liburua

Euskal Herriko

hondartzak, kalak, itsaslabarrak, uharteak, begiralekuak, ibilbideak, naturgune babestuak eta beste.

Euskal kostaldea ezagutzeko 121 amu jarri dizkizugu liburu honetan. Aburitik Muskizeraino dagoen 255 kilometro inguruko kostaren denetarik aurkituko duzu.

Gidan, euskal kostaldean bidaiatzeko zorigarri bat abiatzeko informazio onnarrizkoena topatuko duzu, eta 3,4 kilometro gutxira dituzun hamalika bazter eder ezagutzeko ibilbideak.



Nola eskuratu liburua?

1.- ZURE KARTILLA ESKURATU

Maiatzaren 10ean, larunbata, BERRIarekin.

2.- Kupoiak itsatsi

Maiatzaren 10etik aurrera, egunero kupoak argitaratuko dira BERRIAN, guztira 5.

3.- Kartilla osatutakoan, kioskora eraman eta handik aste eta erdira, kiosko berean izango duzu liburua, 3,40 €-ren truke jasotzeko.

Ipar Euskal Herriko irakurleek ez duzue kartilla bete behariko, baizik eta zuzenean deitu behariko duzue Harpidetza telefonora: (0034) 943-30 43 45.

Maiatzak 10, larunbata
kartilla eta 1. kupoia
berriarekin



HARPIDEDUNENTZAKO OHARRIA:

Nahitako izango duzue **943 30 43 45** telefonora deitzea edo www.berria.info helbide elektronikoan izena ematea, eta 3,4 euroren truke etxean jasoko duzue liburua.

Danborrada, azoka berezia, artisautza eta musika izango dira Trinitate jaietako izarrak

Herri kirolen erakustaldia ere egingo dute Mintxetaren omenez maiatzaren 17an

Maiatzaren 16 eta 18 bitartean, Trinitate jaiek danborren burrunba ekarriko dute inoiz baino gehiago. Haur eta helduen danborradaz gain, Burrunba dantza taldeak *Ukafa zanpaka* lana eskainiko du Herri Antzokian 22:00etan hilaren 16an. Musika eta dantza batzen dituen ikuskizun horretan hamasei perkusionistak, eskusoinu-jole batetik eta bederatzi gaiterok parte hartuko dute.

Maiatzaren 17an, goizetik arratsaldera, Trinitateetako azoka berezia egingo dute Leku Eder parkean. 30 bat baserritako produktuak egongo dira salgai. 11:00etan Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolako kalejira egingo dute, eta lau ordu geroago jaialdia eskainiko dute Plaza Handian. Errioxako ardo dastaketa Leku Ederren, Nafarroa plazan eta Plaza Handian egingo dute 11:00etatik 15:00etara. 19:00etatik aurrera, herri kirolen erakustaldia egingo dute, Aimar Irigoien, Joseba Ostolaza. Elosukorta eta Goenatxo aita-semeekin, besteak beste. Ardi txakurren erakustaldia ere egingo da antzarrekin Na-



farroa plazan. Gauerdian, nagusien danborrada egingo da Udal Musika Bandak antolatuta, Plaza Handian.

Artisau azoka

Maiatzaren 18an, dianaran txanda izango da, Udal Txistulari taldearekin 9:00etan. Ordu berean, Ehiza txakurren lehiaketa jarraitu ahal izango da Larraskandako zelaietan (Madariaga eta Lastur

artean). 10:30etatik 14:30etara, artisau azoka egingo da Leku Eder parkean. Herriko eta kanpoko artisauek bitxiak, beira-gintza, lore lehorrak edo larrungintza erakutsiko dituzte.

Domekako, meza nagusian Parrokia-ko abesbatza izango da. Ordubete geroago, haurren danborraren ueña izango da, eta 17:30etan, erraldoi eta buruhandien kalejira, tartean ustekabe eta guzti.



Maria Pilar Zabaleta Azurmendi

2008ko apirilaren 26an hil zen

ESKERTZA

*Agur amama, amama agur
ohore ta bi muxu.*

*Gure artetik joan zara,
baina gurekin jarraitzen duzu.*

Zure bilobak eta birbiloba

*Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



Galiziako Letren Astea gaur hasi eta asteburu osoan ospatuko dute Plaza Txikian

Amaroko gaiteroek joko dute bihar Haritz Euskal Dantzari taldearekin batera

Txupinazioarekin hasiko da gaur, barixakua, arratsaldeko 19:30etan Galiziako Letren Astea Plaza Txikian. 23:00etako orkestra ekitaldiaren aurretik, galiziar produktu bereziak dastatzeko aukera izango da Lugoko Francisco Verdes *pulpeiroari* esker. Bihar, 12:30etan ere jaki goxoak prestatuko ditu. Gainera hiru egun horietako ekitaldi nagusienetakoa egingo da Euskal Herriko eta Galiziako taldeen ekitaldiarekin. Haritz Euskal Dantzari taldeak eta Banda de Gaitas San Amaro hartuko dute parte 18:30etatik aurrera. 20:00etan dastaketa egingo da, eta ordu erdi geroago orkestra handiaren ekitaldia gauerdia arte. Jarraian, gauerdian, Jose David Ferreiro druida handiak egindako Queimada herriko handiaren txanda izango da.



Bukatzeko, domekan, hildako bazkideen omenezko meza egingo dute Santa Klarako komentuan 9:30etik aurrera. 11:30ean kalejira, Amaroko gaiteroek alaituta. 14:30ean bazkari ofiziala egingo da Kultur Etxeko egoitzan, eta 18:00etan amaituko dira aurtengo ospakizunak.

Galiziako Letren Astearen abiapuntua Rosalia de Castroren *Cantares gallegos* liburuaren lehenengo edizioaren mendurrena da. 1963. maiatzaren 17tik galiziar literaturako idazleren bat goraiatzeko da urtero. Aurten Xose Maria Alvarez idazlea omenduko dute.

Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketa eta Plazatik Gaztetxera saioak izango dira gaur



Gipuzkoako Eskolarteko Bertsolari Txapelketaren saioa egingo da gaur, barixakua, arratsaldeko 15:00etan Elgoibar ikastolan. Txapelketa bi arlotan jokatu da: bat-batean eta bertsopaperetan.

Horrekin batera, 21:00etan, Gazteentxan Bertsolari gazteen txapelketa eta afora egingo da, Plazatik Gaztetxera ekimenarekin. Egoitz Alkorta, Maddi Gallastegi, Hodei Iruretagoiena, Maia-

len Belarde, Jokin Labaien eta Xabat Galletabeitia izango dira bertsolariak. Afariko tiketak Txuri Beltzen, Lanbroan eta Iratxon erosi daitezke bost eurotan (langileak) eta hirutan (langabetu eta ikasleak).

135 ume bertsotan

Bestalde, bertsolaritza gazteen artean bultzatzeko asmoz, Gipuzkoako Bertsozale elkarteak jarraipena eman dio Elgoibarren ahozko komunikazioa bertsuaren bidez lantzeko egitasmoari. Elgoibarko Udalak diruz babestu du eta Lehen Hezkuntzako ikasleentzako izan da. Herriko 135 ume parte hartu zuten proiektu horretan. Jaialdia maiatzaren 6an egin zen Herriko Antzokian.

Uxue Alberdik Osinalde Bertsolari Gazteentzako Txapelketa saria irabazi zuen Gabirian. Entzuleen saria, berriz, Julio Sotorentzat izan zen.

Jasone Osororen “Jara Bartzelonan”, libururik arrakastatsuen

Irakurketa zaletasuna bultzatzeko JUUL hauteskunde literarioak egin dituzte Ikastolan liburu gutukoak aukeratzeko. Hauteskunde hauetan Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta DBHko ikasleak dira boto-emaileak. 12 eta 16 urte bitarteko kategoria, Jasone Osorok *Jara Bartzelonan* liburuarekin jaso ditu Elgoibarren eta Euskal Herrian boto gehien.

Emakume zinegileak, Ongarriren zikloan

Emakumeei buruzko zikloak eskainiko du Ongarrik datozen egunetan: *53 días de invierno* (maiatzak 14), *Read road* (maiatzak 13), *Lejos de ella* (maiatzak 10), *Caramel* (maiatzak 11) eta *XXY* (maiatzak 15) filmak eskainiko ditu.

IMH Sanlo eskubaloi taldea Espainiako Txapelketaren bila joango da

Maiatzaren 16tik 18ra jokatuko da, Olaizaga Kiroldegian



Thinitate jaien baitan, txapelketa garrantzitsua jokatuko da Olaizaga kiroldegian. IMHko Sanlo eskubaloi taldeak Espainiako txapelketa izateko aukera izango du maiatzaren 16tik 18ra. IMH Sanlo taldea Euskadiko txapelketa da, eta txapelketaren azken fasera sailkatzeko aukera izango du etxean bertan. Sanlo, Kantabriako txapelketa (B.M. Camargo), Nafarroako txapelketa (S.D. Itxako), eta Kataluniako hirugarrena (La Garriga Tamayo) izan-

go dira partaideak. Maiatzaren 16an, 17.30ean jokatuko da lehenengo partida Itxako eta La Garrigaren artean. Ondoren, 19:15ean, Camargo eta Sanloren uena izango da. Maiatzaren 17an, La Garriga eta Camargok jokatuko dute, eta 19:15ean, Itxakok eta Sanlok. Maiatzaren 18an, Camargok eta Itxakok jokatuko dute, eta 12.00etan, Sanlok eta La Garrigak. Informazio gehiago www.sanlo.net gunean aurki daiteke.

Txirrindularitza proba kadete mailan

Datorren maiatzaren 17an, goizeko 10:30etan, Lagun Taldeak antolatutako, Elgoibarko Lagun Taldea txirrindulari proba egingo da kadete mailan. Irteera Plaza Handian, eta helmuga Santa Klara kalean izango da. 52 kilometroko ibilbidea izango du.

Aitzbeltz kobazulora txangoa

Elgoibarko Espeleologia taldeak Aitzbeltz kobazulora txangoa antolatu du domekarako. Irteera 9:00etan egingo da Mendaroko frontoitik. Guztira bederatzik kilometro izango ditu joan-etorriak.

Mendarori itzulera

Maiatzaren 17an Mendarori itzulera egingo zaio goizeko zazpietatik aurrera Gaztetxetik aterata. Handik, Beraseta, Madariaga, Atxuri, Sarube, Sasiola, Ormola eta Arnoate ondotik pasa eta Gaztetxera itzuliko da. Izen ematea ere bertan egingo da.

PREST

ENPRESA ZIENTZIEN FAKULTATEA
FACULTAD DE CIENCIAS EMPRESARIALES
MONDRAGON UNIBERTSITATEA

ATE IREKIAK!

MAIATZAK 15 18:00 osteguna Areto Nagusian

OÑATIKO CAMPUSA Tel.: 943 71 80 09 // cgarate@eteo.mondragon.edu

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

Ondoko titulazio hauek eskaintzen ditugu:

- > ENPRESEN ADMINISTRAZIO ETA ZUZENDARITZAN GRADUA
- > ZUZENDARI IDAZKARITZA

WWW.ETEO.MONDRAGON.EDU

Kenci areto futbol taldeak Espainiako B mailara igotzea lortu du

Lehenengo postutik hiru puntu eskasera dago

Matematikoki, mailaz igotzea lortu du Kenci Elgoibar areto futbol taldeak. Datorren urtean Espainiako B mailan jokatuko dute.

Orain dela bi urte maila galdu eta bi denboraldi egin ditu Kencik Euskal Ligan. Azkeneko partidaren ere euren nagusitasuna erakutsi zuten UPV Alavaren aurka. Jokatu dituzten 27 partidetatik 21 irabazi, bi berdindu eta lau bakarrik galdu dituzte. Guztira 134 gol sartu dituzte eta 82 gol jasotakoak. Bigarren postuan daude Racing Astraburukoren ondoren.

Hortaz, liga amaitzeko falta diren lau jardunaldietan txapelketa irabazteko borrokan jarraituko dute.



Artaromoren aurka jokatu du bihar 15:45etan Olaizagan.

Udalen kirol politikei buruzko topaketak egingo dira maiatzaren 22 eta 23an

Maiatzaren 22an eta 23an, Elgoibarren egingo dira Udalen Kirol Politikei Buruzko V. Topaketak. Topaketok Gipuzkoako Foru Aldundiaren Kirol Zuzendaritza Nagusiak, Elgoibarko Udalaren Kiroletako Udal Patronatuak eta KAITek (Euskadiko Kirolaren Arlorako Iritzi Taldea) antolatuta dituzte.

Bestalde, Uretako sorospidetza eta KDA (Kanpoko Desfilibradore Automatikoa) formazio osagarria eskainiko da maiatzaren 31 eta ekainaren 7an Olaizaga kiroldegian. Izena emateko Uretako Sorosle titulua eduki behar da, eta epea maiatzaren 22an bukatuko da. Debarroko ikasleek lehentasuna izango dute. Guztira hamabost lagunentzako tokia egongo da.

Joseba Etxeberria Athleticekin Ligan partida gehien jokatu dituen bigarren jokalaria bihurtu da



Athleticekin Liga partida gehien jokatu duen bigarren futbolaria da Joseba Etxeberria, 413 partidurekin. Txetxu Rojo berdindu ondoren, Jose Angel Iribar "El Txopo" atezaina bakarrik dauka aurretik. Zarautzarrak 466 alditan jantzi zuen elastiko zuri-gorria.

1995eko udan joan zen Etxeberria Athleticera, talde bilbotarrak Realari 550 milioi pezeta ordaindu eta gero. Azken hamahiru denboraldietan maila paregabea erakutsi du.

EMAITZAK

FUTBOLA (2008-5-1)

Alaves 1 – Haundi 1
Haundi 3 – Eibar 4 (erreg.)
Elgoibar 3 – Orioko 4 (jubenila)
Zarauz 1 – Elgoibar 1 (kadeteak)
Trintxerpe 1 – Elgoibar 1 (infantil 1)
Ostadar 2 – Elgoibar 0 (infantil txiki)

ARETO FUTBOLA

UPV Alava 5– Kenci 6 (euskal liga)

ESKUBALOAIA

Tecnifuelle 37 – Ereintza 17 (sen. neska)
Pulpo 13 – IMH Elgoibar 27 (jub. neskek)
Pulpo 24 – Cometel Elgoibar 16 (jub. neskek)

PILOTA (HERRIEN ARTEKO TXAPELKETA)

Orio-Elgoibar
12-22 (kadeteak)
20-22 (jubenilak)
22-4 (senior)

HIRU TXIRLO (GIPUZKAKO TXAPELKETA)

1. Angel Ibarluzea 23 puntu
2. Ganix Rodriguez 18 puntu
3. Anartz Esteban 18 puntu

AGENDA

ESKU PILOTA

Barixakua, 9
22:00 Elgoibar – Andoain

ESKUBALOAIA

Barixakua, 9
18:15 IMH Elgoibar – IES Const. (kad. neskek)
Zapatua, 10
17:30 IMH Elgoibar – Egia (kad neskek)
18:15 IMH Elgoibar – IES Cons. (kad neskek)

Elgoibarko mendi itzulia egiteko izena emateko epea, irekita

Elgoibarko mendietatik zehar egingo da maiatzaren 25ean mendi itzulia. Morkaikoren lokalean eman liteke izena astelehen eta eguenetan 19:00etatik 20:30etara. Plazak mugatuak dira, eta lehenbailehen joatea gomendatzen da. Itzuliak urteroko ibilbidea izango du: guztira, 38 kilometro.

MERKATU TXIKIA

LANA

ESKAERA

- Emakumea interna lan egiteko prest ☎ **639 240 038**
- Neska, nagusiak ordu batzuetan zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Josteko lanak ere egiten ditut. ☎ **943 74 22 01 652 715 908**
- Astegunetan edo orduka, garbiketa lanak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **680 250 527**
- Neska, garbiketa lanetarako edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **626 914 904**
- Neska, garbiketa lanetarako, sukaldian aritzeko edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **669 064 252**
- Neska, garbiketa lanetarako, sukaldian aritzeko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **648 192 683**
- Mutila, sukaldian laguntzaile, zerbitzari (esperientzia), edo arotz lanak egiteko prest. ☎ **686 545 884**
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **678 939 382**
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko prest asteburutan edo gaueetan. ☎ **663 338 456**
- Neska, egun erdiz, arratsalde edo gauez umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **686 234 612**
- Neska, nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **671 476 869**
- Neska, astebukaeretan, arratsaldeen nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **646 821 678**
- Neska, lan egiteko prest. Gidari baimena badut. ☎ **669 154 143**

- Neska, garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. ☎ **652 446 228**
- Neska, etxeetan edo hoteletan zerbitzari lanak egiteko prest. ☎ **638 726 007**
- Neska, orduka lan egiteko prest. ☎ **639 984 262**
- Neska, lan egiteko prest. Sukaldian esperientzia. ☎ **656 781 742 / 688 682 398**
- Neska, orduka lan egiteko prest: eskailerak, tabernak, etxeak garbitu... ☎ **697 702 158**
- Interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **610 632 782**
- Garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **632 090 180**
- Orduka lan egiteko prest. ☎ **654 610 231**
- Mutila, pintore aprendiz izateko edo igeltsero lan egiteko prest. ☎ **671 439 926**
- Neska, edozein lan egiteko prest: nagusiak zaindu, garbiketa lanak. ☎ **648 210 838**

ESKAITZA

- Asteburuetako zerbitzariak behar dira. Deitu astelehenerik ostiralera goizez. ☎ **615 761 463**
- Katalogoak saltzeko lagunak behar dira, komestikoak eta barruko arropa eta bitxiak saltzeko. ☎ **607 824 892**
- Zerbitzaria behar da astebukaerarako. ☎ **943 12 73 34**
- Rezola gasolindegian lan egiteko lagun bat behar da. ☎ **943 74 02 41**
- Elgoibarko ardandegirako banatzailea behar da. Gida baimena eskatzen da. ☎ **607 468 014**
- Zerbitzaria behar da esperientziarekin. Kontratu eskainiko zaio. ☎ **943 74 87 78**

- Sukaldari laguntzailea eta jantoki eta barrako zerbitzaria behar dira. ☎ **688 623 668 / 688 623 667**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Etxea salgai. Erdigunean. Hiru logela, egongela eta sukaldia, bainua eta kamarotea. Kanpoaldera begira eta eguzkitsua. Altzariekin eta igogailuarekin. ☎ **666 650 626**
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berriua, eguzkitsua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariekin salgai. ☎ **628 115 677**

GARAJEAK

- Marradun garajea alokairuan, Juan Mugerza kalean (pista beltza). 38 euro hilabeteko. Autoa, Quad eta motorrentzako. ☎ **616 111 603**
- Garaje itxia salgai pista beltzean. ☎ **943 74 23 06**
- Pista beltzean garaje marraduna alokairuan. ☎ **665 748 781**

MOTORRA

- Citroen Xantia 1.9 TD 92CV salgai. 65.000 km. bakarrik. 4.000 euro. ☎ **664 203 406**
- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaitezko bost plaza (lau, lo egiteko), sukaldia guztiz ekipatua. Berogailu estatikoa eta bira ematen duen janlekua, dutxa, toloa eta bizikletak eramateko lekua. 76.000 kilometro. 2003koa. ☎ **658 710 899 / 685 725 840**

- Seat Leon 1.9 salgai. 105 zaldi (kit aerodinamikoarekin). 15.000 kilometro. ☎ **647 626 693**
- Initale modeloko Renault Laguna autoa salgai. Gama altua. 2003. urtekoa. Egoera ezin hobea. Beti garajeetan gortea. 88.000 km. 16.000 euro negozio-garri. ☎ **690 226 581**

BESTELAKOAK

- Pisu alokatzen da. Logela bat. Altzariekin eta berria. Kanpoaldera ematen du. ☎ **636 631 632**
- Ahuntzak salgai prezio onean. ☎ **699 300 325**
- Neska behar da logela alokatzeko Debatik gertu. ☎ **664 126 273**
- Neska behar da pisua konpartitzeko Mendaron. ☎ **636 690 861**
- Neska behar da logela eta bainua alokatzeko Elgoibarren. ☎ **699 486 458**
- Gutxienez hiru logela dituen pisu baten bila nabil. ☎ **639 882 004**
- Gortinak, ohe arropak, alfonbra txiki edo handi, altzari eta etxerako tresnak behar dira. ☎ **676 444 171**
- Baratza konpartitu nahi dut. Alde zaharretik gertu dago. Ura du, simaurra eta lan egiteko erremintak. ☎ **655 723 678 / 943 74 39 19**

ABISUAK

- Nissan autoko giltzak topatu ditut. Hirukutzetan. ☎ **670 039 572**

ZORIONAK



• Zorionak, **Maidar eta Nerea**, zuen lehenengo jaunartzean. Familia eta bereziki zuen anaia Josuren partez.



• Zorionak, **Eneko eta Jon**, etzi jaunartzea egingo dutuzuelako. Zuen familiaren eta bereziki Haritzen partez.



• Zorionak, **bikote**, belari tirakada handi bat etxeko guztien partez.



• Kaixo **bikote**. Ondo pasa domekan eta patxo handi bat bakoitzari.



• Aurki Elgoibarren... triki-traka trikitron. Presta ezazue tortolika. Iriarte, Etxeto eta Panparron.



• Zorionak, **Yon eta Elder**, urteak egin dituzuelako. Familiaren eta bereziki guraso Saray eta Royren partez.




• Zorionak, **Iker**, sei urte egin zenituelako. Familia-koen eta bereziki Julen eta Asierren partez.



• Zorionak, **Eritz**, zure lehen urtebetetzean. Muxu handi bat Markel eta gurasoen partez.



• Zorionak, **June**, "txipiro-na", domekan sei urte egingo dituzulako. Patxo bat etxekoek partez.



• Gure neska ederrak bost urte egingo ditu maiatzaren 15ean. Aitita, amama eta Andoniren partez.



• Zorionak, **Ane**, bost urte egin dituzulako. Muxu handi bat denon partez.



• Zorionak, **Izaro**, gaur lau urte egingo dituzulako. Familia guztiaren eta bereziki Urkoren partez.



• Zorionak, **Unax**, astelehenean lau urte egingo dituzulako.



• Zorionak, **Befiat**, hiru urte egin dituzulako. Patxo handi bat etxekoek partez.



• Zorionak, **Marina**, 7an zure eguna izan zelako. Bereziki Maria, Irene, Celia eta Jararen partez.



• Zorionak, **Andrea**, zure familiaren partez eta eskerrik asko halako egun polita pasazteagatik.



• Zorionak, **Aner**, apirilaren 30ean zazpi urte egin zenituelako. Maider, Julen, Patxi eta Markelen partez.



• Zorionak, **txiki**, etzi bi urtetxo egingo dituzulako. Aimarren eta etxekoek partez.



• Zorionak, **Maialen**, zure lehenengo jaurnatzearengatik. Etxekoek eta bereziki Iratiren partez.



• Zorionak, **Aiyana**, zure lehen urtebetetzean. Zure osaba-izeben partez.




• Zorionak, **Julene**, maiatzaren 3an 9 urte egin zenituelako. Ondo pasa jaurnatze eguna.



• Zorionak, **Olatz**. Ion, Asier, Unai, Garazi, Elur, Aitor, Uxue eta amonaren partez.



• Zorionak, **Maider**, atzo 8 urte egin zenituelako. Familiaren eta bereziki Ene-ritz eta Arkaitzen partez.



• Zorionak, **Iraitz**, bihar lau urte egingo dituzulako. Muxu handi bat etxeko artistari familiaren partez.



• Zorionak, **Yanela Haizea**, gaur lau urte egingo dituzulako. Osaba-izeba eta aitona-amonen partez.



• Zorionak, **Amala**, atzo bederatzita urte egin zenituelako. Etxekoek partez.



• Zorionak, **Aimar**, hilaren 4ean lau urte egin zenituelako. Muxu asko etxekoek partez.



• Zorionak, **Maialen**, hamalau urte egin zenituelako. Familiaren partez muxu bat.



• Zorionak, **Eneko**, bihar 10 urte egingo dituzulako. Familiaren eta amama-aititaren partez.




• Zorionak, **Maialen**, apirilaren 30ean zortzita urte egin zenituelako. Etxekoek partez.



• Zorionak, **Elena**, oso ondo pasa bihar. Muxu asko aitaxo eta Iratiren partez.



• Zorionak, **Nora**, pasaden igandean 16 urte egin zenituelako. Familiaren partez.



• Zorionak, **potxolol** Bi muxu handi ikastolako laguntxo guztien partez.



• Zorionak, **bikote**, etxekoek partez.



• Zorionak, **Carlos Gonzalez eta Feli Martin**, urrezko eztaiak egingo baitituzue bihar. Seme-alaben eta iloben partez.

OKINDEGIA

11 domeka **IBARRENEA**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 9 Ibañez
- 10 Bidasolo
- 11 Bidasolo
- 12 Etxeberria (Santa Ana)
- 13 Fernandez
- 14 Yudego
- 15 Zabaleta
- 16 Etxeberria (Errosario)

Escala

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebarren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

INFORMAZIO GEHIAGO:



Egin klik www.elgoiBARREN.net/en

9 barixakua

17:30 Kiribilka programa

Bitik sei urtera arteko haurrentzako eta euren gurasoentzako. Plaza Handian.
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra.

18:00 Eskolarteko Bertsolari txapelketa

Gipuzkoako Eskolarteko XXVIII. Bertsolari Txapelketa. Ikastolako frontoian.

21:00 Bertso saioa

“Plazatik Gaztetxera” bertsolari gazteen txapelketako kanporaketa.
Partaideak: Egoitz Alkorta, Maddi Gallas-tegi, Hodei Iurretagoiena, Maialen Belarde, Jokin Labaien eta Xabat Galletabeitia.
Aurretik afaria: txartelak Lanbroa, Txuri-Beltz eta Iratxo tabernetan salgai.
Gaztetxean.

11 domeka

9:00 Aitzbeltz kobazulora irteera

Zubibai Elkarteak, Elgoibarko Espeleologia Taldearen laguntzaz antolatuta.
Informazioa: 635 753 447

9:00 Mendi irteera

Haizea Emakume taldeak antolatuta, Zumaia-Zarautz travesia. Izena emateko, Pi-txintxu dendara jo daiteke.

10:00 Mendi irteera

Ikastolako gurasoek antolatuta, Erlora egingo dute irteera.

12:00 Erakusketa

Fernando Garcia Rubiaren akrilikoak eta Angel Gil Cuevasen eskulturak ikusteko azken eguna. Kultur Etxean.

12 astelehena

16:30 Arratsalde literarioak

Haizea Emakume Taldeak antolatuta. Kultur Etxean.

14 eguaztena

19:00 Ate irekiak

IMHko Heziketa Zikloetako ate irekiak. Informazioa emateaz gain, eraikina bisitatze-ko aukera izango da.

Lanbroa

**Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak**

Astelehenetik ostiralera irekita goizeko 7etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

Burdindegia Etxea

MIG

Tel.: 943 740 831
Saltoki berria: Trenbide kalea 9

Giltzak - Etxeko menajea

LAS LETRAS GALEGAS (PLAZA TXIKIAN)

9 BARIKAKUA

19:30 Inaugurazioa

Xose Maria Alvarez Balquezen omenez, txupinazoarekin hasiko dira jaiak. Galiziako produktuak dastatzeko aukera izango da.

23:00 Dantzaldia

“Gran Orquesta” taldearekin.

10 ZAPATUA

12:30 Galiziako produktuen dastaketa

Francisco Ferreiro pulpeiroarekin.

18:30 Dantza

Haritz Euskal Dantza taldea eta Galiziako Banda de Gaitas San Amaro.

20:00 Galiziako produktuen dastaketa

20:30 Dantzaldia

“Gran Orquesta” taldearekin.

00:00 Keimada herrikoia

Jose David Ferreiro druidarekin.

Ondoren, dantzaldia

“Gran Orquesta” taldearekin.

11 DOMEKA

9:30 Meza

Hildako bazkideen omenez, Santa Klaran.

11:30 Kalejira

Banda de Gaitas San Amaro taldearekin. Ondoren, dantza saioa egingo dute.

14:30 Bazkaria

Galiza Kultur Etxean

18:00 Amaiera

Jaien amaiera.



«Red road»

(Zine-kluba)

9, barixakua: 22:15
13, martitzena: 22:15

«Lejos de ella»

10, zapatua: 19:00/22:15

«Mujer contra mujer»

(Gaztetxean)

11, domeka: 18:30

«Caramel»

(Zine-kluba)

11, domeka: 19:00/22:15
12, astelehena: 21:30

«53 días de invierno»

(Zine-kluba)

14, eguaztena: 22:15

«XXY»

(Zine-kluba)

15, eguena: 22:15



txatxaran



aitor gisasola

Publizitatearen munduan lehenengo pausoak eman berri ditu Aitor Gisasola elgoibartarrak. Seguru ikusi duzuela azken egunotan telebistan: *Keler* garagardo etxearen kanpaina berriko aktoreetako bat da. Iragarkien tartean adi egon! Botila erraldoia eskuetan daraman jertse gorriduna da bera.

“Ikastolan inoiz ez zitzaidan tokatu antzerki tailerra”

Nola iritsi zara Keler garagardoaren iragarkia grabatzera?

Donostian antzerki klaseetara joaten naiz astean behin. Orain dela lau urte hasi nintzen. Eskolan bertan publizitaterako casting-ak egiten dituzte, eta orain dela pare bat hilabete deitu egin zidaten.

Zelako esperientzia izan da?

Zuzendaria gustura geratu zen nik egindako lanarekin, eta neu ere pozik nago. Nire buruarekin gustura nago momentu motz eta konkretu batean ondo erantzuteko gai izan nintzelako. Alegia, kapazidade hori edukitzeak poztu ninduen. Eta hori antzerki klasei esker lortu dut.

Gogorra izan zen pasa beharreko hautaprobak?

Casting-a nahiko azkarra izan zen. Umore britainiarra nahi zutela esan zidaten, baina nik ez nekien horrekin zer esan nahi zuten. Mister Bean etortzen zitzaidan burura! Kamera aurrean, beste neska batekin batera, tabernan egongo bagina moduan egin behar genuen. Bat-batean, Keler izugarri bat

ateratzen zigutela imajinatu behar genuen, eta harridura aurpegia ipini. Baina han ez zegoen ezer, eta hori irudikatzea izan zen zailena. Antzerki hutsa!

Nola sartu zitzazun antzerkirako grina?

Ikastolan, hautazko ikasgaietako bat zen antzerki tailerra. Nik galdeketa guztietan antzerki tailerra ipintzen nuen lehenengo aukerara, baina inoiz ez zitzaidan tokatu. Amorrurik horrek bultzatu ninduen gero antzerki klaseetan hastera. Egun, Elgoibarko Taupadan eta Donostiako antzerki talde batean nabil. Bietan, oso gauza interesgarriak ikasten. Maiatzaren 29rako obra bat prestatzen ari gara Donostiako taldearekin. Antzoki Zaharrean izango da, arratsaldeko 20:00etan. Denok gonbidatuta zaudete.

Aurrera begirako planik?

Orain dela hilabete batzuk, film labur bat grabatu nuen Algortako zuzendari batekin. Muntai fasean dago zinta, baina laster irtingo dela pentsatzen dut. Jaurlaritzaren Kimuak programan sartzea lortzen badugu, banaketa ona izango du zinemaldietan.

LUDOTEKAKO EKINTZAK



**KRISTINA ENEA
ETA IGELDORA
IRTEERA**

MAIATZAK 24

Izen-ematea eta informazioa:
943 74 88 83. **5 euro**
(Ludotekako bazkideentzat)



GAZTELEKUKO EKINTZAK



**MAIATZEKO
OSTIRALAK
DANTZAN**

Aerobic eta Funky
17:30ean

UDALEKUAK

Mendigorrira joateko
izena emateko azken
eguna **MAIATZAK 16**

Elgoibar

Residencial Géminis

Hobeto bizi!



Etxebizitza
berri eta eksklusiboak
garaje eta trastelekuekin
266.000 eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

943 74 80 92
www.grupogsi.com



Gsi

(Ongizate eremuak)

Trinitateak 08

Ondo pasa jaiak!

*Zorionak
elgoibartar guztioi
Udalaren izenean*



Burrunka taldearen

UFAKA ZANPAKA MUSIKA ETA DANTZA IKUSKIZUNA

Eguna: maiatzak 16,
ostirala

Ordua: 22:00

Tokia: Herriko Antzokia

Prezioa: 8,5 euro



Sarrerak aurrez salgai Pitxintxu liburu-dendan

Antolatzaileak: Elgoibarko Udaleko
Euskara eta Kultura Sailak
Laguntzailea: Caixa Catalunya

